

ELA

HEZKUNTZA

Haurreskolak

ZUREKIN GOAZ

Indar betez, buru-belarri

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

ela.eus     #ZurekinGoaz

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

2019ko martxoaren 26an garrantzia handiko hitzordu bat dugu hezkuntza publikoko langileok: hauteskunde sindikalak. Egun honetan, langileok, gure botuaren bidez, gure ordezkariak aukeratu eta datozen lau urtetarako indar korrelazioak erabakiko ditugu.

Azken urteetan krisiaren aitzakiarean murrizketa oso gogorak ezarri dizkigute hezkuntza publikoan. Krisi aurretik baino aberastasun gehiago sortzen dugun arren hezkuntzan inbertsio publikoa beherantz doa etengabe zorraren ordainketara bideratzen den dirua gorantz doan bitartean. Gure ikastetxeetatik dirua atera, banketxeei emateko. Hori da gobernuek, botere ekonimikoen interesei men eginez erabaki dutena.

Hezkuntza publikoa jo-puntun dago: plantilen murrizketa, ratioen igoera, lan-kargen handitzea, eros ahalmenaren galera, behin-behinekotasun tasa onartezinak, erretiroaren atzerapena eta zailtzea, LOMCE eta Heziberriren inposaketa, segregazioa...

Azken bi ikasturteetan egoera honi aurre egin asmoz greba eta mobilizazio historikoak eraman ditugu aurrera hezkuntza publikoan eta gobernua mugiaraztea lortu dugu, ZORIONAK!

Zoritxarrez, eta ELAren iritziaren kontra, gainerako sindikatuak hezkuntza publikoak dituen arazoei erantzuten ez dieten akordioak sinatu zituzten Jaurlaritzarekin pasa den ikasturtean. ELA izan zen grebak mantentzearen alde agertu zen sindikatu bakarra. Sindikatuon papera ezin da izan administrazioak aldebakarrez inposatzen dituen murrizketen zati txiki bat itzultzen digutelako eskerrak ematea, baizik eta bizi dugun eraso bortitzaren aurrean langileak antolatu eta borrokarako bide ematea.

ZERGATIK ELA?

- Ikasturte hasierarekin batera argi ikusi dugu hezkuntza publikoak dituen arazoak bere horretan jarraitzen dutela eta esperientziak argi erakutsi digu Jaurlaritza beste norabide batean doazen erabakiak hartzera behartu nahi badugu langileon antolakuntza eta greba eta mobilizazio dinamika indartsu baten bidez izango dela. Zoritxarrez ELA da momentu honetan bide hori egiten ari den sindikatu bakarra.
- Hezkuntza berdintasuna, justizia soziala, integrazioa, jendarte kohesioa eta garapen pertsonal eta sozial integralerako oinarritzko tresna izango den eta hezkuntza publikoa ardatz izango duen hezkuntza sistema baten alde borrokatzen dugulako.
- Hezkuntza publikoko sektore desberdinetako prekaritate egoera, arazo eta aldarrikapenei bide emateko beharrakoa den mobilizazioa bultzatzen dugulako.
- Guzti hori aurrera eraman ahal izateko egitura eta antolakuntza oso sendo eta zabala dugulako. Ideologikoki eta ekonomikoki sindikatu independientea garelako. Klase sindikatu feminista garelako, eta gurea kontrabotereko sindikalismo aldarrikatzailea delako.

**HORREGATIK, ELA SINDIKATUA HEZKUNTZA
PUBLIKOA ERAIKITZEKO INOIZ BAINO
EZINBESTEKOAGOA DA!**

**ZURE ESKU DAGO, MARTXOAREN 26AN
BOZKATU ELA!**



HAUTESKUNDE SINDIKALAK

Haurreskolak Heziketa Proiektua

- Unibertsala: Haur eta familia guztiek benetako aukera izan dezaten herri eta auzo guztietan.
- Doakoa: Matrikulazioa doan eta janari zein jantoki zerbitzua prezio murriztuetan.
- Kalitatezkoa: langile kopuru, lan baldintza eta baliabide nahiko eta egokiak dituena benetako heziketa proiektua garatzeko.
- Euskalduna eta euskalduntzen duena.

Langileen etorkizuna

- Prekarietatea: egonkortasuna bermatzeko eta prekarietatearekin amaitzeko.
- Ratioen finkapena: hezitzaileen lan kargak arintzeko eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko.
- Doakotasuna: ezinbestekoa da haurreskolen etorkizuna eta gure lana bermatzeko.

Aldarrikapen garrantzitsuak ditugu egiteko eta lan-baldintzak hobetuko dituen benetako negoziazioa behar dugu guztiz hila dagoen hitzarmena berritzeko. Azken urteetan agerian geratu den moduan, honetan aurrera pausoak eman nahi baditugu, funtsezkoa da ELAren indarra eta lana.

Ez dugu behar zuzendaritzarekin zuzenean adostutako akordioarik, langileen beharrak asetuko dituen akordioa behar dugu. Gure lan baldintzak hobetuko dituena, langile finkoak egonkortuko dituena, ordezkoek bere lurraldean lan egitea ahalbidetuko duena, kudeaketa langileei beraien plaza emango diena, lan zamak gutxituko dituena, ratioak finkatuko dituena, prekarietatearekin amaitu eta kontratu duinak bermatuko dituena.

HEZITZAILE FINKOA NAIZ ETA...

Iraila iristean hainbat hezitzailek, gure jatorrizkoa ez den Haurreskolan hasi behar izaten dugu lanean. Nahiz eta langile finkoak izan, egoera prekario honen aurrean aurkitzen gara urtero.

Mugimendu hauen ondorioz eta egokitzapen garaia kontuan hartuta, jatorrizko Haurreskoletako hezitzaileen lan karga biderkatzen da eta kasu askotan, ikasturte hasieran prestakuntza orduetara uko egin behar izaten diete. Beraz, zergatik ez erabili pertsonal baliabide horiek, kalitatezko egokitzapena ahalbideratzeko eta hezitzaileon prestakuntza orduak errespetatzeko?

Hau gutxi balitz, desplazatuak lanean dauden Haurreskolek ere zailtasun handiak izaten dituzte. Izan ere, ikasturtea aurrera doan heinean erreferenteak desagertzen dira jatorrizko Haurreskoletara bueltatuz. Honek lan taldea berrantolaketa eta haurrak hezitzaile berrietara egokitzea dakar. **Finkoa bai, baita prekarioa ere!!!!!!!**

ORDEZKOA NAIZ ETA...

Lanean hasteko, gure lurraldetik kanpora joan behar izaten dugu edo jardun murriztuko lanpostuak eskuratu. Sektore feminizatua izanik, soldata aldeaz gain, kilometrajearen zama ekonomiko, fisiko eta psikologikoa jasaten dugu. Etxetik 100 kilometrotara egonik, nola demontre kontziliatu?

Lan metaketak banatzean, gure etxe ondoan lanpostua banatuko dutela jakinda ere, beste lurralde batetik deitzen badigute akabo! Ez dugu gure lurraldean lanpostua hautatzeko aukerarik izango, lurralde bakoitzeko zerrendaren kudeaketa independentea delako. Kudeaketa mota hau ulertezina da, gure artean etsipena sortuz.

Bestalde, nahiz eta ordezkoen araudian Haurreskolan dagoeneko lanean dauden ordezkoek lanaldia luzatzeko lehentasuna zehaztu, antolaketa dela eta, ordezkapen berriak lanaldi osokoak izaten dira askotan.

Guzti hau kasu gutxi batzuen adierazle besterik ez da. Egunero pairatzen ditugu onartezinak diren beste horrenbeste egoera.

2009tik hezitzaileen LEPik egon ez denez, batzaz beste 500 hezitzailek (330 LEP eta 160 ordezko gutxi gora-behera) ez dugu lanpostua finkatzeko aukerarik izan, behin-behinekotasuna %40-%60 artean dagoelarik.

Ordezkoak = 2.mailako langileak

KUDEAKETA LANGILEA NAIZ ETA...

15 urteren ondoren, langile guztiak behin-behinekoak gara.

Hezkuntza Saileko administrazioko langileen funtzio berdinak izanda ere, haiek baino kategoria eta soldata baxuagoak ditugu.

Ez gara ordezkatuak izaten, eta gure lanpostuetatik mugituz, hutsuneak betetzen dituzte honek dakarren lan zama jasanezina bihurtuz. Egoera honek langile askok lanpostua uztea izan du ondorio, azken urtean langileen %64ak.

Martxoan sinatutako akordioan LEP prozesua jaso arren, zehaztapen faltak gure lanpostuak kolokan jarri ditu.

Langileon borroka, greba eta mobilizazioen ondorioz Partzuergoa mugitzen hasi bada ere, asko dago egiteko eta orain arte bezala ELA sindikatuaren babes osoa izango dute. **Kudeaketa langileen lan baldintzak negoziatu!!!**

Martxoaren 26an, bozkatu ELA!



Haurreskoletako langileok gure interesak defendatu eta erlatibizatuko ez dituen sindikatua behar dugu. Gure indarra eta borroka gaitasuna benetako aurrerapausoak ematera bideratuko duen ordezkaritza sindikala, alegia.

Hori ELArenkin posible dugu:

-Klase sindikatua garelako. Euskal Herriko langile guztion indar eta babesa duen gehiengo zabalarekin.

-Ideologigoki, politikoki eta ekonomikoki sindikatu independentea garelako. Langileon interesak interes politiko, ekonomiko edo bestelakoen baitan erlatibizatzen ez dituen.

-Jendartea eraldatzea helburu duen kontrabotereko sindikalismo aldarrikatzailea egiten dugulako.-Egitura eta antolakuntza sendo eta zabala dugulako

-Haurreskolek, 15 urteren ondoren, goitik beherako eraldaketa behar dutelako, eta horretan indarra jarriko dugulako.

Batu eta borrokatu gurekin!

-Haurren zaintza ardatz duen eredu batetik, 0-3 urteko haurren heziketa-proiektua ardatz duen eredura pasatzeko.

-Hezkuntza aurrekontua handiarazteko.

-Gure lan-baldintzak (soldatak, ordutegiak, azpiegiturak, prestakuntza, baliabideak...) hezkuntzako gainerako lankideekin parekatzeko.

-Kontratuaren eta lanpostuaren kontsolidazioa eta egonkortasuna bermatzeko.

-Gelako gutxienez bi hezitzaile eta ratio egokiak bermatzeko.

-Haurreskolen doakotasuna, lan kargen arintzea eta lanpostu gehiago lortzeko.

-Kendu diguten %8ko eros ahalmena berreskuratzeko.

-Erretiro aurreratua eta pizgarriak lortzeko.

-Benetako heziketa integrala ahalbidetzeko prestatzeko denbora handitu eta arreta zuzeneko denbora murriztea eta formakuntza eta baliabide gehiago izatea lortzeko.

-Kudeaketa langileetan ordezkapenak lehen egunetik lortzeko.

-Koordinatzaileek heziketa proiektua garatu ahal izateko bere lana egiteko denbora gehiago eta formakuntza egokia lortzeko.



ZUREKIN GOAZ

Haurreskolak

HAUTAGAITZA

1. Ioar Zendoia Amilibia.
2. Gorka Ojanguren Torres.
3. Rebeca Cayero Alcorta.
4. Josune Arsuaga Alda
5. Miren Arantza Garcia Beñaran.
6. Maria Rodrigo Ruiz.
7. Igone Ameztoy Salaberria.
8. Elena Guijarro Ortiz.
9. Nekane Aranburu Gurrutxaga.
10. Irene Vallespir Vila
11. Mainer Lajas Olaberria
12. Nerea Odriozola Gonzalez.
13. Loren Eceiza Retegi.
14. Nerea Duran Lizarralde.
15. Kontxi Dominguez Muñoz.
16. Sonia Fernandez Andres.
17. Ana Cuñado Arruabarrena.
18. Maite Maiz Azkargorta.
19. Miren Elixabete Matxinandiarena Muguertza.
20. Irune Lopez Basurto.
21. Ana Mendoza Berriozabal.

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

ela.eus



ZUREKIN GOAZ

Indar betez, buru-belarri

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

ela.eus



#ZurekinGoaz